

noaua



UDAJOLASEN MURGILTZEKO GARAIA IRITSI DA

Astlehenean abiatuko da udaleku irekia eta honakoan 224 gaztetxok eman dute izena / 20

ARGAZKIA: ARTXIBOKOA

Gizarte zerbitzuen egoitza berria, Barrenkale 2 kaleko etxabea / 03

Izan Bai musika taldea: "Larunbateko kontzertua grabatu egingo dugu" / 14

Xabat Illarregi bertsolaria: "Usurbilen kantatzeak motibatu egiten nau" / 15

Jai giroa nagusi izango da datozen egunetan Usurbilgo erdigunean / 16



USURBIL
O P T I K A

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es



Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, NOAUA! eta udaletxean aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu www.noaua.eus webgunetik edo eskaneatu QR kodea zure mugikorrarekin!

**TREN ETA
AUTOBUS
ORDUTEGIA**

25/26

noaua

QR CODE

TORCG

Gizarte zerbitzuak, egoitza berrian

Barrenkale 2 kaleko etxabeen aurkituko duzue gizarte zerbitzuen egoitza berria, udal-letxe ondoan. Orain arte, Kale Nagusia 43 behean zeuden udal zerbitzuok. "Baina txiki geratua zitzairen, eta herritarren pribatutasuna bermatzeko zailtasunak zituzten".

Egoitza berria ireki arren, azken lan batzuk egitea falta zaiela jakinarazi du Udalak. "Egoitza berria ireki bada ere, sarrerako irisgarritasun

baldintzak hobetzeko zenbait lan egitea falta da. Oraingoan, atarira iristeko zegoen koska baten erdia egokitu da, arrapala txiki bat eginda, gurpildun aulki, orgatxo eta abarrek bertara iristea errazteko", berri eman dute Udaletik.

Orain arte bezala, aurrerantzean ere, ohiko ordutegian artatzen segiko dute Gizarte Zerbitzuen egoitza berrian; astelehenetik ostiralera, 09:00-



Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00ak arte zabalik, asteazkenetan izan ezik.

14:00 artean. Asteazkenetan izan ezik, "ez baita aurrez

aurreko arreta zerbitzurik eskaintzen".

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Uztailaren 2an Santuenetik Kalezarrena eta hilaren 9an Kalezartik Mikel Laboa plaza-ara lekuz aldatuko du garbigune mugikorra Usurbilgo Udalak. Bestalde, bi astean behin egin ohi duten moduan, igande honetan, uztailaren 5ean bilduko du Udalak berriz erre-fusa.

"Goazen kalera", herri erdigunean irailera arte

Ekainaren 16az geroztik bi aldaketa txertatu dituzte astearteroko ibilaldi osasuntsuen egitasmoan; batetik, abuztu amaiera artekoak herri erdigunean egingo dira. Bestetik, "paseo motzak izango dira, eta amaieran kafetxea hartzeko aukera izango da lagunartean". 10:30ean, frontoitik abiatuta.

Informazio postua, indarkeria matxistari aurre egiteko

Emagin elkartearen eskutik, bi baliabide eskainiko dituzte. Batetik, indarkeria matxistaren aurkako informazio gunea jarriko dute Mikel Laboa plazan uztailaren 3an eta 4an, 21:00-00:00 artean eta egun horietan arreta puntua egokituko dute Gaztelekuan, 00:00-06:00 artean.

Udako oporren aurreko azken aldizkariak

Eskuartearen duzuen, udako oporraldi aurreko azkenetako aldizkaria duzue. Azkenak, uztailaren 10ean eta 17an argitaratuko ditugu. Hurrengo asteetarako oharrak bideotatik helarazi ahalko dituzue:

- erredakzioa@noaua.eus
- 943 360 321
- Egoitza: Bordaberri, 3.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

San Juan sutan

E kainaren azkenera gerturatu eta egunik luzeenak bero-bolada bortitzean harrapatu gaitu. Nekagarri bezain etsigarria den bero sapa, gainetik kentzea ezinezkoa dirudi. Leihoak zabalduagatik ez da sumatzen airearen eragin zipitzik. Etxe zulutik irten eta zaplazteko agurtzen dute egunek.

Ohiko lekuan pilatua dago duela denbora batetik, sastraka, egur eta landare hondakin lehorren multzoa. Urteak urtera, neurri eta osagai ezberdinak izan ohi ditu eta aurtengoa oso handia ez zenaren irudipena nuen. Baina agian,ugarrek hartzen dutenean nagusitzen delako izan daitekeela ere pentsatu dut.

Aste hasierarako, suak piztea debekatuko dutenaren susmoa sumatzen hasiak geunden inguruan. Eta atzera oroitzeiko ariketa egin du zenbaitek, duela urte batzuk antzeko egoeran egon ginela ohartaraziz. Eta halaxe izan da, astelehenetik asteazkenera bitartez giroak ez baitu hobetzera egin. Nahi baino maizago errepikatzen hasi den egoera dirudi.

Hala ere, familiako whatsapp taldean, galdezka hasita zeuden ea aurten ere baserrira igo eta afari-mokadua egingo ote genuen elkarrekin. Sua piztea ezinezkoa izango bazen ere, igotzeko gogoa gailentzen zen. Eta planak aurrera egin zuen, bakoitzak otu zitzaion



Ohi baino segurtasun neurri handiagoen artean piztu zuten sua Kalezarren.

jan-edana ekarri eta mahaia kanpoan osatu genuelarik.

Esango nuke, usadio zaharrak, itxura aldatuta heldu direla gugana. Ziurrenik garai batean ez zuten halako esentzia berezia. Ez zen familiak batzeko beharrezko beste aitzakia bat. Naturaren zikloari eta lurraren denborari eginiko aitortza bat izan zitekeen agian. Data honeatik aurrera, geroz eta gehiago ahultzera zioan eguzkiari indarra emateko ahalegina. Lurrari lotuago, eskertuago eta errotuago bizi zen gizarte baten erritua.

Gurean hala ere, purifikazioa edo berritzearen ideia mantendu da. Etxean sorgin ugari bagauden arren, ez dugu sugarren inguruan dantzarik egiten. Baten batzuek, orria eta arkatza eskatu eta barnera begirako ariketari ekiten diote urtero. Testu luze bat, zerrenda bat, forma eta esanahi as-

koko irudi edo eskemak... bakoitzak bere modura eskatzen dio suari, aurrera darraien urteari eskatu nahi diona.

Leku seguruan kokatutako bidoi metaliko txiki batean piztu dugu sua. Neronek, ez dut ezer idatzi aurten. Suari begira bildu naiz barrura, atzean utzitakoak eta aurrera begirako nahiak errepasatuz. Eta ingurura begiratuz, aurrerrantzean txarrik bada ere, aurrera egiteko modua bilatuko dugunaren ziurtasunarekin agurtu ditut sugarrak.

"SUARI BEGIRA BILDU NAIZ BARRURA, ATZEAN UTZITAKOAK ETA AUERRERA BEGIRAKO NAHIAK ERREPASATUZ"

Odola ematen jarraitzeko deia

Ekainaren 14ko Odol Emaileen Nazioarteko Eguna guztiok bizitzeko behar dugun odola ematearen garrantziaz kontzientziatzeko baliatu zuten; tartean, egun harekin bat egingdako Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Euskadiko odol emaleen bilgunetik odol erre-serbak baxu direla ohartarazten ari dira.

Hurrena, uztailaren 6an

Odola emateko aukera izango da berriz, herriko jaiak amaitu eta berehala, datorren astelehenean, uztailaren 6an, 16:30-20:10 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie.

Lehen aldiz odola ematen dutenek, dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

"Goazen Kalera" bueltan da

Beroaldia tarteko, Udalak aurreko asteko ibilaldi osasuntsua bertan behera utzi ostean, astearte honetarako, ekainaren 30erako dago iragarria hurrengo "Goazen Kalera" dinamika-ri lotutako paseoa, 10:30ean frontoi ondotik. Uda honetan paseo labur bat eta kafetxo bat hartzeko aukera izango da herri erdigunean barrena.



Ekainaren 30erako iragarrita dago.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



650 Usurbil Bizi herri egitasmoarekin elkarlanean antolatuta da ikuskizuna.

“Ikimilikiliklik vol.2”, NOAUA! K.E.-ren 30. urtemugaren harira

Ikuskizun artistikoa uztailaren 18an izango da, gaueko 22:30ean Dema plazan.

Duela 50 urte, diziplina anitzetako sentikaria sortu zuten, 'Ikimilikiliklik' izenekoak. Mikel Laboaren abestiak, Joxan Arzteren poesia, Jose Luis Zumetaren artea, ikus-entzunezkoak... hartu zituen bere bai-

tan. Bost hamarkada geroago, ikuskari berri bat plazaratu du Loraldiak, mende honetako “Ikimilikiliklik vol.2”. Edurne Azkarateren zuzendaritzapean ariko dira Iñaki Salvador, Oreaka Tx, Libe Kortazar, Intza Alkain eta Itziar Garaluce. Xehetasun gehiago, hurrengo aldizkarian.

Euskara eta aisialdiko dirulaguntzak eskatzeko azken egunak

Uztailaren 7ra arte aurkeztu ahalgo dira eskabideak udal erregistroan edo telematikoki usurbil.eus atarian. Gogoan izan, finkatutako baldintzak betetzen dituzten euskara ikastaroak egindakoek matrikula kostuaren %100a jaso dezakete bueltan, gehienez 600 euro;

aisialdiko begirale edo zuzendari izateko ikastaroen kasuan, matrikula kostuaren erdia, 250 euro gehienez jota. Bi deialdiotarako, Usurbilen erroldaturiko 16 urtetik gorakoa izan beharko da. Deialdion oinarriak ekainaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dituzue.

Udalaren lan deialdia

Udalak gizarte zerbitzu, berdintasun eta aniztasun/jardue- ra fisiko eta kiroleko administrari lanpostua betetzeko deialdia plazaratu zuen iaz. "Ondoren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta izangaiak aurkezteko epea ireki zen", Udaletik azaldu dutenez. Beste urrats bat eman dute orain. Izan ere, "izangaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren behin-behi-

neko zerrendak onartu behar dira". Beraz, berdintasun eta aniztasun/jardue- ra fisiko eta kiroleko administrari lanpostua betetzeko "oposaketa-lehiaketa prozesuan onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda" onartu du Udalak, ekainaren 23ko GAO bidez jakinarazi zuenez. Interesdunek uztailaren 8ra arteko tartea izango dute alegazioak aurkezteko.

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Elebitasuna

Gaur egun euskaldun elebakar heldu askorik ez da izango, baina orain laurogei bat urte, soldaduskara edo herri batera lanera joatean ikasten zuten baserriar askok erdara. "Bizitzaren eskolan" matrikulatu eta hortxe moldatzen ziren nola hala.

Gure Nikolasa, Markes-eneara etorri da nes-

kame, eta egun batez, puntuak irabazi nahian edo, horrela dio:

-Señora Marquesa, ya he puesto cabrón en el fuego.

Nota kaxkarra jarri omen zioten.

Lapurrak (gerra aurretik)

Ohitura medio, hitz egi- terakoan erabiltzen ditugun neurriak ez dira egokiak izaten askotan. Horrela gertatzen da, besteak beste, ogiarekin. Duela urte asko, seikoa edo hirukoa esaten omen zen librak adierazteko, gero kilokoa edo librakoa, gerora berriz librakoa edo libra erdikoa baina, dena dela, ez dute

benetako pisua adierazten.

Horrela bada, hona Antonio Valdese- k, Santu-Eneako ijitoak, erantzun ziona okindegiko Amandriri kiloko ogia eskatu ondoren:

-Hau al da kiloko ogia?

-Amandrik: Bai

-Antoniok: Joño! Lehen gu ginen lapurrak, orain denak!

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**

www.noaua.eus



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK



943 36 91 39

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Anbulatorioko pediatria zerbitzuen gabezien harira, EAJk mozioa aurkeztu zuen eta EHBilduk osoko zuzenketa.

Mozioa eta osoko zuzenketa, pediatria zerbitzuaren harira

Konpontzeke segitzen du, Usurbilgo anbulatorioko pediatria zerbitzuan dagoen gabeziak. Gai horri lotuta EAJk mozioa aurkeztu zuen ekainaren 25eko udalbatzaren osoko bilkuran eta EHBilduk horri erantzuteko osoko zuzenketa.

ARITZ LASARTE

Jeltzaleen mozioa ez zen onartu, EHBilduk aurka bozkatu zuelako, PSE abstenitu zen. Aldiz, EHBilduk mozio horri aurkezturiko osoko zuzenketa gehiengo osoz onartu zuten, EHBilduren babesarekin. EAJ aurka agertu zen eta PSE abstenitu zen. Bost puntuko mozioan EAJk kezka agertu zuen profesional faltarekiko, zerbitzu horren egonkortasunaren alde lanean jarraitzea deitu zuen Osakidetza. Izan ere, testuak berak gogorarazi moduan, "Usurbilgo haurrek eta haien familiek kalitatezko osasun-arreta jasotzeko eskubidea dute, eta horren barruan berebiziko garrantzia du pediatria-zerbitzu egonkor,

hurbil eta jarraitua izateak". Horrekin batera, pediatria plaza errazago estaltzeko profesional horri udal-jabetzako etxebizitza jartzea aztertzea proposatu zion udal gobernu taldeari, plaza hori erakargarriago egiteko aukera gehiago aztertzeko Osakidetzarekin elkarlanean jardutea galdegitearekin batera.

"HAURREK ETA HAIEN FAMILIEK KALITATEZKO OSASUN-ARRETA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTE"

EAJ-PNV

EHBilduren bost puntuko osoko zuzenketa, aldiz, Udalak konpromisoa hartu du, "Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritzari beste bilera bat eskatzeko" eta bertan, beharrezkotzat jotzen du herriko guraso taldeak parte hartzea. Idatzi bat helarazi asmo diote Eusko Legebiltzarreko talde

"EHBILDUK KONPROMISOA HARTU DU ESIKO ZUZENDARITZARI BESTE BILERA BAT ESKATZEKO"

EH BILDU

politikoei Osasun Batzordean azalpenak ematea eskatu edota Osasun Sailari zein Osakidetzari egoera konpontzeko "beharrezko ekimenak susta ditzaten" eskatzeko. Osakidetzari galdegiten dio anbulatorioko pediatria zerbitzua erakargarriagoa izateko "beharrezko neurriak har ditzala, bereziki kontratazio-eredua eta lan-baldintzak hobetzeko bidean, eta plantillen errealitate soziala eta feminizazio-maila kontuan izan ditzala". Bestalde, Udalak konpromisoa hartzen du "osasun komunitarioaren ikuspegia" sendotze bidean eta bere eskumenen baitan, "osasunaren sustapena eta prebentzioa indartzeko programak garatzen jarraitzeko, lehen arretako profesionalekin, herriko eragileekin eta komunitatearekin elkarlanean". Azkenik, "beti ere Osakidetzak hala eskatuko balio", aztertzeko asmoa agertzen du EHBilduren osoko zuzenketa "beti ere bere eskumenen baitan eta diskriminazio egoerak saihestuz, herriarentzat estrategikoak diren lanpostuetara profesionalak erakartzea eta atxikitzea erraz dezaketene neurriak martxan jartzeko aukera".

PSE-EEren abstentzioa

Bi testuon aurrean, PSEk abstenitzea erabaki zuen. EAJren mozioari dagokionean, dagoen arazoarekin bat egin arren, planteaturiko konponbideren batekiko zalantza agertu zuen Petri Romerok. EHBilduren osoko zuzenketa dagokionean, baloratzeko modukoa iruditu zitzaion erakundearen alde eginiko apustua, baina "egoeraren planteamendua" ez zuela ulertzen adierazi zuen.

EAJk argi utzi nahi izan zuen "Usurbilgo familien kezka erabat zilegia dela" eta gai honekin dagoen arazoak "familien bizitzan eragina duela ere ukaezina da", zioen bozeramaile Xabier Otxoak. Beste kontu bat da, bere esanetan,

→ "demagogia egitea. Gaur egun, pediatria arreta bermatua dago batzuetan Usurbilen eta beste batzuetan, Lasarte-Oriako osasun zentroan. Osakidetzak uneoro bermatzen du pediatria zerbitzua".

Halere, "Usurbilen pediatria zerbitzua ematea ehuneko ehunean, modu egonkorrean eta jarraituan, hori da gure nahia, familia eta Osakidetzarena". Horregatik EHBilduri aurpegiatuz, "mozioan murrizketaz hitz egitea, gezurra izateaz gain, arduragabekeria galanta iruditzen zaigu. Murrizketa balitz, zerbitzua desagertuko zen edo Usurbilgo haurrei arreta ukatuko litzateke, eta hori ez da inondik inora gertatzen, ondo dakizuen bezala. Gertatzen dena da, plaza hori egonkortasunez betetzeko zailtasun handiak daude eta hori ez da Usurbilgo arazo isolatua, pediatria falta arazo orokorra da, osasun sistema osoan gertatzen dena. Horregatik, errealistak izan behar gara eta ez demagogoak. Pediatria bat Usurbilera etortzeak ez du udalak erabakitzen ezta Osakidetzak ere, profesionalak berak".

Testuinguru horretan Otxoak zioenez, Osakidetzaren alde tik argi dago zer egin dezakeen Usurbilgo pediatriaren plaza erakargarriagoa izateko. Aldiz, "pediatria eskumena ez izateak ez du esan nahi Udalak ezer egin ezin duenik edo borondatea duenik. Udalak borondatea badu, gauza asko egin ditzake plaza hori erakargarriagoa izateko. Horretarako borondatea eta nahia egon behar da eta hori ez dugu ikusten. Erraztasunak eman daitzke eta hori da guk proposatzen duguna; Udala Osakidetzarekin elkarlanean mantentzea. Udalari eskatzen diogu bere zatia egin dezala".

Udal gobernu taldeari galdetu zion, "ahal duzuen guztia egingo duzuen arazoari konponbide bat emateko". EHBilduren osoko zuzenketan aipaturiko Donostialdeko



Pediatria zerbitzu duina aldarrikatzeko, ekaina hasieran Donostia ospitalearen atarian eginiko herritarren mobilizazioa.

ESIaren bilera eskaeraren harira Udalak zerbitzu horretara bidalitako gutuna ez dutela jaso ziurtatu zuen Otxoak. "Bilera hori eskatu bada non dago eskaera ofiziala?", galdetu zuen Otxoak, "EAJren udal taldearen mozio bat behar izatea zuzendaritzarekin bilera bat eskatzeko" gobernu taldearen "kudeaketa modu baldarra" agerian uzten zuela baieztatzearekin batera. "Gauza bat da familiak entzun eta defendatzea eta bestea, familiak erabiltzea interes politikorako. Familiei egia esan behar zaie, segurtasuna eman, irtenbideak eskaini. Hemen ez dugu inor lasaitzen zuen mezuekin, hori ez da ardura politikoa, hori demagogia eta alarma soziala elikatzea da", EAJkoentzat.

Adierazpenon aurrean, bilera eskaerari dagokionean

"PEDIATRIA ARRETA BERMATUA DAGO, BATZUETAN USURBILLEN ETA BESTE BATZUETAN LASARTE-ORIAN"

EAJ-PNV

alkateak argitu nahi izan zuten, "telefono dei bat izan genuen. Esan genion lehen arretako arduradunari ostegun honetan mozio bat onartuko zela eta espresuki modu ofizialean eskatuko zitzaioala bilera hau eta beraz, mozio hau onartu eta gero egingo genuela bilera eskaera. Beraz, bilera hau eskatuko genuela alde aurretik telefonoz hitz eginda dago". Bilera eskaera bera, gutun ofizial bidez igorri dela udal erregistroan egiaztatu dezakeela adierazi zion EAJ-ren bozeramaileari.

"Burutazio handiagorik"

Gainerakoan, onartezintzat jo zuen alkateak EAJ-k esandakoak. "Udal gobernu honek familiak interes politikorako ez ditu erabiltzen eta halako akusaziorik ez dugu onartuko EHBilduren izenean. Dema-

gogoia iruditzen zaigu, plaza bat erakargarria egiteko pertsona bati etxebizitza bat eskaini behar zaiola esatea. Mozio horren aurka egoteko arrazoiak bat hori da, ulertzen dugulako Usurbilgo Udalak eta beste udalek ez dugula erantzukizunik eta ez ditugula etxebizitzak nahi adina, funtzionario publikoei emateko. Burutazio handiagorik".

EHBilduk aurkezturiko osoko zuzenketan ahotan hartuta zioenez, "gure mozioan prest gaude, beti egon garen bezala, neurriak aztertzeke eta benetan lanpostu hori erakargarri egiteko. Udal honek zer bait egin badezake etxebizitza eskaintzea ez dena eta gure eskuetan egon daitekeena, bestelako neurriak hartzeko eskatzen bazaigu Osakidetzatik, dudarik ez izan neurri horiek aztertzeke prest gaudela, hori izan delako hasieratik gure nahia eta bokazioa". Alkateak adierazi zuenez, "Osakidetzak egiturazko arazoak ditu eta horren ondorioak Usurbilgo pediatrian ere ari dira jasaten". Horregatik, onartezintzat jo zuen erakunde arteko lankidetzarako Udalaren prestasuna zalantzan jartzeari, "demagogia egiten ari garela esatea".

"OSAKIDETZAK EGITURAZKO ARAZOAK DITU, ONDORIOAK PEDIATRIAN ERE JASATEN ARI DIRA"

EH BILDU



Aho batez onartu zuen udalbatzak Udarregi ikastolarekin sinatutako kontratua eteteko negoziatioari ekitea.

Partzuergoan integratzeko urrats berriak

Haur eskolari lotutako zerbitzua, irailetik aurrera, datorren 2026-27 ikasturtean Haurreskolak Partzuergoaren baitan eskaintzeko urrats berria eman zuen udalbatzak iragan ekainaren 25eko osoko bilkuran.

ARITZ LASARTE

Izan ere, "Udarregi Ikastolarekin sinatutako 0-3 adin tarteko haur-eskola zerbitzuari dagokion kontratua aldeztu aurretik" eteteari bide eman zioten, zehazkiago esanda, datorren abuztuaren 30ean, udalbatzak aho batez onartu zuenez. Udal gobernu taldetik azaldu moduan, "kontratua adostasunez hausteko negoziazio prozesu bati ekiteko" onarpena ematea zuen xede proposamen horrek. Udal ordezkari guztien aho bateko onospena jaso zuen. Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak gogora ekarri moduan, "integrazio prozesu honek beste erabaki bat hartzera behartzen gaitu; udal

haur eskolaren kudeaketarako ikastolarekin dugun kontratua etetera behartuak gauden". Solaberrietak oroitarazi moduan, "2024-25 ikasturteko eta hiru ikasturterako kontratua du indarrean udalak Udarregi ikastolarekin 0-3 adin tarteko Usurbilgo udal haur eskola kudeatzeko eta ondorioz, kontratu honen amaiera,

"UDARREGI IKASTOLAREKIN DUGUN KONTRATUA ETETERA BEHARTUAK GAUDE"

berez, 2027ko abuztuaren 31ra artekoa da".

Kontratu etete hori adostasunez egingo dela nabarmendu zuen, "guztiok dakigulako kontratu hau amaitzeko arrazoia ez dela kontratistarekin arazo bat sortu delako edo kontratuaren exekuzioan gorabeherak izan direlako edo Udalaren jardura oker ba-

"GAUR ONARTZEN DUGUNA DA KONTRATUA HAUSTEKO NEGOZIAZIOARI HASIERA EMATEA"

tengatik. Guztiok dakigu kontratuaren hausturaren motibazioa".

Udal haur eskola zerbitzua Partzuergoan integratzea ahalbidetzeko da. "Ondorioz, sektore publikoko legeek ematen digute aukera gisa honetako kontratuak adostasunez eta bi aldeen arteko adostasunarekin hausteko, kasua den bezala. Kasu honetan, adostasunez egiten direnean, legeek ez dituzte zehazten indemnitazio automatiko edo tasaturik. Legeak esaten duena da bion artean ados jarri behariko genukeela kontratu horren hausturak ekar ditzakeen galerak zeintzuk eta zenbatekoak izango diren" zehazteko.

Kontratu horren arduraren udalbatzarena da. Horregatik ekarri zuten iragan osteguneko saiora, "epe bat irekitzea ikastolarekin adostasun hori lantzeko eta negoziazioaldi bat irekitzea, kontratu honen hausturarako akordio bat lortzeko. Gaur onartzen duguna da prozesu horri hasiera ematea. Epealdi bat irekitzen dugu negoziatorako eta ondoren, berriro ere gure asmoa da, hurrengo hilabeteko plenora ekartzea. Adostasun horren emaitza zein den, kalte-ordainak zenbatekoak eta zeintzuk izango diren onartzea udalbatzari dagokio".

Gogoan izan, erabakia dago irailetik aurrera, 0-2 tartearentzako zerbitzua Haurreskolak Partzuergoak eskaintzea eta 2-3 adin tartea Udarregi ikastolak kudeatzen segitzea.

Aldaketak, udal lanpostuen organigraman

Haur eskola Partzuergoan integratzeak kontratu etete horrekin batera, aldaketa gehiago ere ekarriko ditu. Ekainaren 25eko udalbatzaren osoko bilkuran argi geratu zen. "Ezohiko subrogazio prozesu" bat hasieraz onartu beharra izan zuen, haur eskolari lotutakoa hain zuzen.

Izan ere, alkateak gogora ekarri zuenez, "Eusko Jaurla-

→ ritzak udal haur eskolak diruz ez laguntzen jarraitzeko hartutako erabakiaren ondotik eta herri honetan haur eskola zerbitzu bat izaten jarraitzeko helburuz eta gainera, zerbitzu horri atxikita egon diren langileen egoera babes-teko asmoz, Usurbilgo Udalak eta Haurreskolak Partzuergoak jarduketa protokoloa sinatu genuen 2026ko otsailean, 0-2 udal zerbitzua zena, Partzuergoaren egituraren integratzeko prozesua bideratzeko".

Orain arte, adin tarte horretan aritu diren langileei Partzuergoan integratzeko aukera eskaintzen zaie, baina "hori zer baldintzetan egin Partzuergoak zehazten du, hala jasota dago jarduketa horretan". Horretarako, lehenik, Udalak subrogatu egin behar ditu langileak, "ondoren, udaletik Partzuergoan integratu ahal izateko".

Udalak langileok subrogatu ahal izateko ezinbestekotzat jo zuen udalbatzak bozketa garaian aho batez onarturiko proposamena; alegia, udalaren plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzea. "Langile horiek udalean egun batez egotea aurreikusten da".

Guztira, Partzuergoak Udalari adierazitakoaren arabera, zazpi izango dira Udalak subrogatuko dituen langileak, "zazpi lanpostu berri sortuz plantilla organikoan". Langileok Partzuergoak subrogatu ostean, berriz ere udal plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatu beharko dute, sortutako zazpi lanpostu horiek ezabatzeke.

Udalak subrogatuko dituen langileak "laboral izaerako langileak dira, laboral finko bezala kontratatuko lituzke Udalak". Hortik aurrera, "zer zazpi langile kontratatu, puntu honen dokumentazioan ikusi duzue zerrenda bat".

Udal gobernu taldetik osteguneko saioan iragarri zuten, hurrengo osoko bilkuran, uztailekoan, "udalaren eta Partzuergoaren arteko integrazio



Haur Eskolaren 0-2 tartearen Partzuergoaren baitan eskaini eta 0-3 tartearen Udarregi ikastolak kudeatzen segiko du.

hitzarmena" hartuko dute ahotan. "Horrek bi eranskin izango ditu; Udalak Partzuergoari egiten dion eraikinen lagapena, Partzuergoak zerbitzu hori gure herrian emateko eta beste eranskina da, langileei dagokiona; ze zazpi langile hartuko dituen Partzuergoak. Guretzat garrantzitsua zen, plantillaren aldaketa egitearekin batera, aurrez sinatua gera zedin ze zazpi langile izango diren eta nolabait udala eta Partzuergoaren arteko hitzarmen horren atal hori sinatua geratu dadin, Partzuergoaren konpromisoa langile horiek subrogatu ahal izateko".

Beste aldaketa bat txertatzeko ere baliatu zuten unea; "kale garbiketa eta mantenu ofizialaren lanpostuaren zerrendako betekizunen C gidabaime-na c1/b*" izatera igarotzeko. Hartara, "aldaketa horrekin

lortuko genuke ordezkapenak azkarrago bideratzea". Aipatu aldaketok aho batez onartu zituen udalbatzakilaren 25eko osoko bilkuran, hasieraz eta aho batez. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, hamabost egunez jendaurrean izango dute alegazioak aurkezteko. Halakorik ez balego, behin betiko onartutzat joko ditu Udalak.

Erakunde adierazpena

LGTBIQ+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izan genuen ekainaren 28a. Egun horri begirako erakunde adierazpena ere onartu zuen aho batez udalbatzak, ekainaren 25eko osoko bilkuran. Egun honek, ospakizuna, memoria eta aldarrikapena uztartzen ditu. Horregatik, "lanean jarraituko dugu pertsona guz-

tientzat bidezkoagoa, inklusiboagoa eta anitzagoa izango den gizartea eraikitzeko", dio udalbatzak aho batez onarturiko Eusko Jaurlaritzaren Berdindu LGTBI zerbitzuaren mozioak; bereziki, testuak zehaztua duenez, "zaugarritasun handieneko egoeretan bizi direnentzat". Izan ere, "badira oraindik ere ikusgarritasun txikiagoa duten identitateak, gorputzak eta sexu-orientazioak. Askotan, gutxiago ulertzen dira eta diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa dute. Horien artean daude pertsona transak eta intersexualak, baita emakume lesbianak eta pertsona bisexualak ere". Gizarteko aniztasuna ikusgarri egin eta "pertsona askoren eta mugimendu sozialen ahaleginari esker lortutako eskubideak" defendatzeko eguna dela aldarrikatzen du mozioak. Izan ere, "azken urteetan ikusten ari gara zenbait diskurtsoek dagoeneko lortutako eskubideak zalantzan jartzen dituztela. Era berean, espazio batzuk gero eta seguruagoak ez direla pertsona LGTBIQ+ askorentzat ere ikusten ari gara".

Azken udalbatzarraz xehe-tasun gehiago, hurrengo al-dizkarian emango ditugu.

"UDALAK SUBROGATU EGIN BEHAR DITU LANGILEAK, PARTZUERGOAN INTEGRATZEKO"

UDAL GOBERNUA

"ZENBAIT DISKURTSOEK LORTUTAKO ESKUBIDEAK ZALANTZAN JARTZEN DITUZTE"

EKAINAK 28 EGUNAREN HARIRA

Bizi asko eta berotik joan dira Kalezarko festak

Beroaldi betean tokatu direnez, festak uanean uneko girora egokitu behar izan dituzte.

Uda garaia eta festen denboraldia estreinatu ohi dute Kalezarren jaiak. Esperotakoa da urte garai honetako beroa, baina iragandakoa ezohikoa izan da eta nabaritu dute aurtengo lehen festek. Alarma eta alerta artean barneratu dira aurtengo ospakizunetan Kalezarren. Egokitu behar izan dituzte festak uanean uneko girora; ekainaren 23ko sua ohi baino txikiagoa izateko segurtasun neurriak zorrotz zituzten edota Umeen Egunean ur jolasak nagusitu eta pozik asko blai amaitu zuten gaztetxoek. Halere, nola ez, beroak ez du

zapuztu festarako giroa. Ekainaren 19tik 24ra, askotariko ekintzetan parte hartzeko aukera eskaini zuen jai batzordeak. Izan zen nobedaderik. Zirkuola arte eszenikoan lantegikoek, zirko erraldoian bilakatu zuten Egurtzezi ataria, Gorritiren animalien gainean ibili ziren gaztetxoek...

Lagunartean

Horrez gain, auzokideak herri kirolean neurtu ziren, haiekin murgilarazi zuten Kalezar festa giro betean. Lehia bizi eta estua izan zen, lagunartea txapeldun izandakoa.



Auzotarren arteko jolasekin abiarazi zituzten jaiak.

Segidan, afaritarako elkartu ziren. Horrez gain, herri eragile zenbaiten bisita izan zuten Kalezarren; biak ala biak, biran ikusiko ditugunak Usurbilgo herri eta auzoetako datozen jaietan ere. Batetik, Orbeldi dantza taldekoen belaunaldi gazteenak erakustaldi bikaina eskaini zuen, eta segidan, iaz estreinakoz egin bezalaxe, Lauburu Erraldoien eta Buruhandien Konpartsak lehen kalejira egin zuen, he-

rri nortasunari estuki lotutako iazko buruhandi talde berrituarekin. Biziki ekin zaio aurtengo udako festen denboraldiari.

ASKOTARIKO EKINTZETAN PARTE HARTZEKO AUKERA ESKAINI ZUEN JAI BATZORDEAK



Ekainaren 23ko eskean ateratako gazte kuadrilla.



Beroaldiगतिक, segurtasun neurri zorrotzen artean piztu zuten jaietako sua.



Orbeldi dantza taldeak udako bira abiatu zuen Kalezarko jaietan.



Lauburu Erraldoi eta Buruhandien konpartsa irten zen estreinakoz aurtengoan.



Zirkuolak girotu zuen Egurtzegi ataria, ekainaren 20an.



Sagardo eta sardina dastaketa goxoak borobildu zituen Kalezarko jaiak.



Laguntasuna txapeldun, Umeen Eguneko krosean.



22 bikoteen artean, mus txapelketako irabazleak.



Osteratxoa egiteko aukera izan zuten, Gorritiren animalien gainean.



Bero itzela egin arren, ez zioten txokolate gozoa dastatzeari muzin egin.



Kalezartarren jai egun nagusiko toka txapelketa irabazi zutenak.



Beroaldi betean sartzeaz ginela, blai amaitu zuten Haurren Eguneko jolasetan.

Eskertza eta oroimena, 50. urtemuga festan

Usurbil F.T.-k betetako 50 urteak ospatzeko ekimenak izan dira azkeneko bi asteburuotan.

Zubieta Lanbide Eskolarekin batera jaiotako txupinazoa jaurti aurretik, betetako 50 urteen ospakizun zikloa borobildu du Usurbil F.T.-k aurreko bi asteburuotan. Hasteko, ekainaren 20an futbolari beteteranoen arteko partidak jokatu ziren Haranen. Aspaldiko laguneren topaketa ederra izan zen larunbat goiz hartakoa. Belaunaldi ezberdinetako jokariak elkartu ziren. Lehia bizia izan zen, baina laguntasuna nagusi, euskal selekzioaren ofizialtasunarekin bat egindako hitzorduan. Ekaina-

ren 27an, bestalde, urtemuga ospakizun eguna antolatu zuen Usurbil F.T.-k.

Bidelagunen topaketa

Gauerdia txarangak, The Hastelen s herriko taldeak nahiz dj-ak musikaturiko jaialdiak hitzordu nagusi bat izan zuen; Agerialdeko frontoian eginiko bazkaria. 50 urteotako futbol taldeen bilgunearen lagun mordoak elkartu zituen. Eskertzarako eta oroimenerako tartea hartu zuten. Kluba zuzenduriko hainbat lagun omendu zituzten, oroigarri eta txa-



Euskal selekzioaren ofizialtasunarekin bat egin zuten beteteranoen neurketetan.

pel eder banarekin. Eskertza, ordea, kide guztiengana zabaldu zuen egungo lehendakari Ainhoa Azkuek. Izan ere, "haietako bakoitza gabe, ibilbide hau ez zen posible izango". 50 urteotan izandako "inklusio eta laguntasun izpiritu hori da gure harrotasun handietako bat". Faltazirenen "legatuak bizirik" segitzen duela nabarmenduta, urtemugari gorazarre egiteko to-

parako deia egin zuen, atzoko eta gaurko kideen alde, nahiz "historia hau idazten jarraituko duten belaunaldien alde".

"HAIETAKO BAKOITZA GABE, IBILBIDE HAU EZ ZEN POSIBLE IZANGO"



Usurbil F.T.-ren beteterano emakumezkoak.



Lagunarteko lehia bizia izan zen emakumezko usurbildarren artean.



Usurbil F.T.-ren beteterano gizonezkoak.



Realeko beteteranoekin lehiatu ziren gizonezko usurbildarrak.



Usurbil F.T.-ko 50. urtemugako bazkariaren amaieran ateratako argazki jendetsua. Giro ederrean ospatu zuten mende erdiko jaialdia.



Gauerdiko txarangak girotu zuen 50. urtemuga festa.



Mende erdi honetako bidelagun mordoia elkartu zuen urtemugako bazkariak.



Usurbilgo emakumezkoen futbol jokalarien taldeetako bat.



Urteotan Usurbil F.T.-rekin lotura izandako Uribetarrak.



Belaunaldi ezberdinetako Usurbil F.T.-ren jokalaria gizezkoak.



Usurbil F.T.-ren belaunaldi ezberdinetako gizezko jokaria.



"Usurbil ez da bereziki heavyzalea", aitortu digu Ixak Arrutik.

"Izan Bai bezalako talde txikiek zaila dugu plazaren bat lortzea"

IZAN BAI MUSIKA TALDEA

Ixak (gitarra, abeslaria), Ibonek (gitarra), Urtzik (baxujolea) eta Martinek (bateria) osatzen dute taldea. Larunbatean Belerekin eskainiko duten kontzertua berezia izango dela azaldu digute.

Ixak eta Martin, zuentzat berezia da herriko jaietan jotzea?

Martin: Noski dela berezia herrian jotzea, eta jo dugun batetik bestera asko aldatzen da. Nire kasuan, urte batzuk badira ez naizela oholza horretara igo eta oso berezia da lagunen eta ezagunen aurrean zure proiektua aurkeztea.

Ixak: Berezia da ere txikitatik ikusi ditugun talde handiek Usurbilen jo izan dute, eta gu haiei begira hazi gara. Arrazoi horregatik eta herrian delako beti da berezia.

Zer bait berezia prestatu duzue jaietako kontzerturako?

Ixak: Bai, ez dugu gehiegi arduratu nahi, baina bai, sor-

presa batzuk egongo dira. Esan dezakeguna da kontzertua grabatu egingo dugula. Teknika bat aparte ekarriko dugu abestiak pistetan grabatzeko, eta hiru pertsona sei kamarekin egongo dira kontzertua bideoz grabatzen.

Gerora, printzipioz, sareetan jartzeko asmoarekin egingo

"LARUNBATEKO KONTZERTUA GRABATU EGINGO DUGU. 23:00TAN FRONTOIRA BERTARATU"

dugu. Beraz, herriari dei egin nahi diogu 23:00etan, kontzertu hasieran, denak frontoian egotea, betirako gaua izango baita.

Zergatik egin nahi duzue kontzertua modu horretara?

Urtzi: Martin eta Ixak Usurbilgoak izanik, taldeak Usurbil-

"KRISTOREN GOGOA DUGU FRONTOIAN JOTZEKO. DUGUN GUZTIA EMANGO DUGU"

bilen entseatzen duenez eta jaietan joko dugunez, plaza berezia da guretzat eta berezi egin nahi dugu kontzertua.

Ibon: Nonbaiten grabatzekoan eta irudiak nonbaitekoak izatekotan, zein hobeto herrian baino. Hor grabatuko diren irudiak betirako geratuko dira. Gutxienez, Usurbilek ere bere lekua izan dezan.

Kontzertua grabatzeak presioa gehitzen dizue?

Urtzi: Presio puntu hori bai, are gehiago, jakinda grabatzen ari direla. Nolabait hori dena ahaztu egin behar dugu. Guk kristoren gogoia daukagu frontoian jotzeko. Guk daukagun guztia emango dugu.

Ibon: Beti joaten gara dena ematera, 20 lagun edo 2.000 egon. Oraingoan kamarekin eta, beste errespetu puntu bat ematen du, baina betiko moduan egurra emango dugu.

Usurbil heavy metalaren zaleak dituen herria al da?

Ixak: Ez bereziki, baina bada-goa jendea heavy metala gustatzen zaiona. Hala ere, horrek ez du esan nahi heavy metala bakarrik gustatzen zaigunik. Baina zaletasun pixka bat badago.

Martin: Gu ere heavyaren zaleak gara, baina beste gauza bat da heavyz janztea. Pentsatu dezakezu herria ez dela heavya, baina gero konturatzen zara jende asko dagoela musika estilo hau entzuten duena.

Nola ikusten duzue euskal eszena?

Ibon: Laupabost talde emankor managerrekin, eta haiei ematen dizkiete plazak.

Ixak: Musika eszena Euskal Herrian oso anitza da, talde pila gaude, oso onak gainera, baina industria beste gauza bat da. Hor diskoetxe handiak daude, horiek eramaten dute dena. Orduan, talde txikiek zaila dugu plazaren bat lortzea. Gainera, asko gara.



Bertsolari leitzarrak Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen iaz. ERRAN.EUS

"Usurbilen lehen aldiz kantatzeak motibatu egiten nau"

XABAT ILLARREGI BERTSOLARIA

Xabat Illarregi (Leitza, 2001) duela urte batzuk Udarregiko bertso-eskolako irakasle izan zen arren, lehen aldia izango du gurean kantatzen, eta horrek "motibatu" egiten du.

Usurbilen bertso irakasle gisa ibili zinen. Zer oroitzapen dituzu garai hartakoak?

Bai, urtebetez bertso-eskolako talde baten irakasle moduan ibili nintzen, Donostian unibertsitateko gradua ikasten nabileanean. Oroitzapen oso onak ditut. Orain dela gutxi ikasle ohiak ikusi izan ditut Gipuzkoako Bertsozale Elkar- teak antolatutako asteburu pasa batean. Oroitzapen politak dauzkat.

Irakasle gisa nahiko hasierako garaiak izan ziren, eta ni ere ez nintzen oso kontziente bertso-eskola bat ematea zer zen, baina tira, nik uste ikas- teko balio izan zidan urtea izan zela.

Ikasle ohiak saioan ikusleen artean egoteak presioa areagotzen dizu?

Ikasle ohiak bertso saioan baldin badaude, presioa baino gehiago poza sentituko nuke oraindik ere bertsoarekin lotura izaten jarraitzen dutelako. Ikusleen artean jende ezaguna egotea ohituta gaude, eta

"EZEZAGUNEN AURREAN BAINO ZAILAGOA IZATEN DA EZAGUNEN AURREAN KANTATZEA"

ezezagunen aurrean baino zailagoa izaten da ezagunen aurrean kantatzea. Ez dut presiorik, eta gozatzen badugu, ba pozik egongo nintzake.

Zer moduz daramazu Nafarroako txapeldun izatearen zama?

Nabaritu dudana da saio gehiago ditudala, eta hori badakit,

"USURBIL HERRI OSO EUSKALDUNA IZANIK, GIRO ONA SORTUKO DELA IRUDITZEN ZAIT"

neurri handi batean, Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi izanagatik dela. Gero nabaritzen duzu ere gaietan horri buruz kantatzera jartzen dizutela. Lehenengo hilabeteetan txapelketa irabazi izana presente egoten da.

Gero hori nola kudeatzen den, bakoitzak erabakitzen du. Nik sari gisa hartzen dut txapela irabazi ondoren saio horietan kantatzea. Beti nahi duzu zure maila eman, eta bertsoetan nola egiten duzun erakutsi, baina hori txapela irabazi gabe ere beti dugu bertsolarietara. Oraindik ez zait suertatu zama handiegirik, edo behintzat horrek ez nau itsutu. Gerta liteke inkontzienteki, baina oraingoz behintzat txapelagatik ez, baizik eta joaten naizen leku horretan ahalik eta hoberen aritu nahi dudalako.

Amets Arzallusekin, Jone Uria- rekin eta Maddi Ane Txoperena- rekin kantatuko duzu ostegun honetan, Joxe Martin Sagardia plazan. Zer espero duzu Usurbilgo saioaz?

Zaila da saioak aurreikustea dakigun bakarria delako zein bertsolari izango garen. Plazan ze giro egongo den, zein gai izango diren, zer testuinguru izango den, hori zaila izaten da aurreikusten, batez ere lehen aldia baldin bada plaza batean kantatzen duzuna, eta hori nire kasua da. Baina bertsolariok elkarren artean harreman ona daukagu, eta nik uste horrek asko laguntzen duela saio bat aurrera eramateko momentuan.

Nire aurreikuspena behintzat, Usurbil herri oso euskalduna izanik, eta neurri batean, bertsoetara zaletuak izanik, giro ona egongo dela eta motibatuta noa.

Lehenengo aldia izateak urduritu egiten zaitu?

Motibatu egiten nauela esango nuke. Saio asko daude Euskal Herrian, eta saioen bat berria egokitzen zaizu.



Esanahi eta sinbolismoz betetako jaietako zaindaria sortu du beste behin, Jokin Eizagirre herrikideak.

Bost eguneko jaien zurrumbilo bizian murgilduak

Bost eguneko zoramen eta ospakizunen zurrumbiloan murgildua da jada herri hau. Igandera arte, hamaika hitzordu izango dira, denetarik eta denontzat, aurtengoan, Martin arrantzaleak zainduko dituen festetan.

ARITZ LASARTE

Uztailak 2, osteguna

09:00 Esnadeia txistulariekin.

11:00 Txistulariak eta lore banaketa Egurtzegin.

12:00 Soka dantza Joxe Martin Sagardia plazan.

Jarraian, lore eta salda banaketa.

12:00 Triku taldearekin kalejira.

16:00 Mus txapelketa Askatasuna plazan (izen ematea 15:30-16:00).

17:00 LIII. Esku pilota txapelketako finalak.

17:00 Diskofesta Gaztelekuan.

17:00 Euskal Selektzioaren Aldeko "auntoke" Txapelketa Mikel Laboa plazan, LH 3-6 artekoentzat. Izen ematea: 16:30.

18:30 Bizikleta-kanabera lehiaketa txosnetan.

19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan: Amets Arzallus, Jone Uria, Maddi Ane Txoperena eta Xabat Illarregi. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

21:00 Erromeria frontoian: Bide Batez.

23:00 Kontzertuak txosnetan: Aingura, La Furia eta Siwana-ba DJa.

BIZIKLETA-KANABERA LEHIAKETA JOKATUKO DA TXOSNETAN

Uztailak 3, ostirala

09:45 Haur eta gazteei harre-ra Joxe Martin Sagardia plazan.

10:00-13:00 Txikientzako puzgarriak frontoian.

10:00-12:00 Ginkana (LH 1etik LH 4ra) eta erronka (LH 5etik DBH 2ra), izena ekainaren 21a baino lehen eman zutenentzat.

10:30-11:30 Txutxu treneko lehen ordua, Eguneko Zentroko eta Artzabalgo helduentzatzat.

HERRITARREN ARTEKO HERRI KIROLAK JOKATUKO DIRA UZTAILAREN 4AN

11:00-13:00 Toka txapelketa, botea eta Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.

11:30-13:30/15:30-17:30 Txutxu tren Bordatxo aurretik.

12:30 Buruhandi eta erraldoiak.

13:30 Umeen bazkaria Artzabalen (norberak ekarrita).

14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian.

14:30 Gazte bazkaria txosnetan.

15:30 Ur puzgarriak eta apar festa Artzabalen.

18:00 Txokolate jatea eta Kak-tus DJa Artzabalen.

18:00 Xaukena elektrotxaranga txosnetatik abiatuta.

20:00 Tapia eta Leturia Band frontoian.

23:00 Kontzertuak txosnetan: The Lio, 48280 eta Moskato DJa.

Gutxien uste duzunean, Platan Dantza.

Uztailak 4, larunbata

12:00 Elektrotxaranga.

12:30 Herritarren arteko herri kirolak.

14:00 Zikiro jana Askatasuna plazan.

18:00 Sutargi erromeria txosnetan.

18:00 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.

19:00 Buruhandi eta erraldoiak.

20:00 Laskotxaranga.

23:00 Kontzertuak frontoian: Izan bai eta Bele. Jarraian, kontzertuak txosnetan: Bad Sound eta Fifi eta Fefa DJa.

Uztailak 5, igandea

07:00 Kita del Pare txaranga txosnetatik abiatuta.

Ondoren, gaupaseroen argazkia.

09:00 Esnadeia trikilariekin.

10:00 Puzgarriak zezen plazan.

11:00 Joaldunak Egurtzegitik abiatuta.

18:30 Buruhandi eta erraldoiak.

18:30 A toda madre mariatxiak Artzabalen.

18:30 Paella lehiaketa txosnetan (izen ematea: 18:00).

23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.

Jarraian, Enaitz eta Erkizirekin erromeria txosnetan.

Ikastolaren lagun izaten segitzeko deia ikasle ohiei

Udarregitik badoazen DBH4ko ikasleei ikastolarekin hartuemanetan jarraitzeko gonbita egin zitzairen.

Urtero moduan, DBH4ko ikasleak agurtu zituzten ikasturte amaieran, ekainaren 19an, bertatik badoazelako. Meretzitako agurra jaso zuten, urteotan bidelagun izandako ikastolako langileen aldetik. Zuzendariak arrastoa utziko dutela adierazi zien. "Zuen presentziak gure komunitatea aberastu du. Harro gaude egin duzuen bideaz eta lortutako guztiaz". Bide hori konfiantza osoz erakitzen jarraitzeko gonbita egiteaz gain, gogorazazi nahi izan zenez, etorkizunean ere "ikastolako ateari

beti zabalik izango dituzue nahi duzuenarako, zuen etxea ere izan delako urte askotan". Horretara gonbidatu zituzten, ikastolarekin eraikitako hartuemanari eustera.

Zubi-lan horretan dihardu hain zuzen, Udarregiren baitan osatutako Ikastola Lagunak taldeak. Euskal Herri mailako sare bat da Ikastola Lagunak; jada hamasei bat talde badira, beste zortzi eraikitze bidean dira. Ikastolako kide izandakoekin osatuak daude; hau da, ikasle, langile edota familia ohiez. Ikastolaren berri izan



Ikastola Lagunak taldeko kide Mariaje Imaz, egitasmoa aurkezten.

eta beharrezkoa balitz, ahal duten horretan laguntzeko kide ohiek sortutako bilguneak dira. Horregatik hain zuzen, "guk ez dugu eteterik nahi zuekin izandako hartueman", adierazi zien ekainaren 19ko agur ekitaldian zehar DBH4ko ikasleei, Udarregiko Ikastola Lagunak taldeko kide eta zuzendari ohi Mariaje Imazek. Bertatik joan arren, ikastolaren lagun izaten segitzera gonbi-

datu zituen. Horren erakusgarri, ekimenaren izena dararmaten koaderno, estutxe eta boligrafo bana oparitu zien.

"AURRERANTZEAN, GUK EZ DUGU ETETERIK NAHI ZUEKIN IZANDAKO HARTUEMANA"

Baxoa egitera zihoazenak bisitan ikastolan

Baxoa euskaraz ikasleen mugimenduko bi ordezkari izan ziren Udarregi ikastolan, ikasturtea amaitu aurretik.

Oinarrizko hizkuntz eskubi-deak bermatu gabe jarraitzen dutenez, horien defentsan borrokan segi behararen adibide baten berri lerrootan; Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleena. Unibertsitatean sartu ahal izateko baxoa izeneko proba euskaraz egin ahal izatea bermatu nahi duen ikasleen mugimendu ezaguna bada. Mugimendu hartako bi ordezkari izan ziren Udarregi ikastolan, ikasturte hau amaitu aurretik, DBHkoekin solasean. Euskararen erabilera sustatzen dabilen ikastola

barruko bilguneak antolatu zuten hitzordua.

"Denon arazoa da"

Baxoa aurten ere euskaraz egiteko hartutako erabakiaz mintzatu ziren, agian ez zitzaizkiela probak zuzenduko eta horrek haien aurrera begirako ikasketen prozesua zaildu zezakeela jakin arren. Baxoa egin bezperatan izan ziren Udarregin, hartutako erabakiari tinko eusten ziotela argi uzten. Jasotzen ari diren babes eta sostengu zabala nabarmendu eta eskertu zuten.



Oporren aurretik, Bernat Etxepare Lizeoko ikasleekin izandako solasaldia.

Elkartasun sare horretara batu ziren baita Udarregiko ikasleak. "Gure babesa adierazi nahi dizuegu borroka honetan. Asko apreziatzen dugu" zioten, geure hizkuntz eskubideen alde egiten ari diren borroka. "Zer egin dezakegu zuek laguntzeko?" galdetu zieten; "informatzea zuen inguruan". Gugandik urrun gertatzen ari dela uste izan arren, "zuek egon ahal zineten gure lekuan.

Denon arazoa da. Beraz, informatu dezakezue, ekintzak sostengatu, arazoa guztiona dela erakutsi".

"INFORMATU, EKINTZAK SOSTENGATU, ARAZOA GUZTIONA DELA ERAKUTSI"



Udarregi ikastolako LH 4. mailako ikasleak, haiek garatutako Askatasuna plazako bolatokiko proiektuaren ondoan.

Jolaserako txoko berri bat, Askatasuna plazako bolatokian

Mahai-jokoez hornituriko armairu bat duzue erabilgarri Askatasuna plazako bolatokian. Udarregi ikastolaren LH 4. mailako ikasleek garaturiko proiektuaren emaitza da. Erabili bai, baina ondo zaintzeko eskatu digute, gogotik lan egin behar izan dute eta egitasmo honetan.

ARITZ LASARTE

Zaintza, auzolana eta laguntasuna gordetzen du bere baitan, Askatasuna plazako bolatokian duzuen armairuak. Udarregi ikastolako LH4. mailako ikasleek landutako proiektuaren emaitza da, herriko haurrek lagun nahiz senideekin erabil dezaketena. Hogeitik gora mahai-joko ditu bere baitan. "Etxean erabiltzen ez ditugunak ekarri ditugu", adierazi ziguten irudiko LH-4ko ikasleek elkarriketatu genituenean. Aisialdi garaian, aspertuta egon edo euria egiten duenean bolatokian ondo pasatzera animatu nahi dute. "Etorri eta probatu". Barruan aurkituko dutena, haiek nahiz ikaskide gehiagok etxean era-

biltzen ez dituzten jolasak direnez, "halako jokoei beste aukera bat ematea" ahalbidetuko du haien proiektuak. Beraz, berrerabilera sustatu dute armairu horren bidez. "Jolasei bizitza berri bat eman diegu. Zuk ez baduzu erabiltzen, ematen diezu beste batzuei erabiltzeko aukera", azpimarratu digute ikasleok.

"JOLASAK ETA ARMAIRUA ONDO TRATATZEA ESKATU NAHI DUGU, LAN ASKO EGIN BAITUGU"

Armairuan aurkituko dutena gustukoa izatea espero dute, baina batez ere zaintzea nahi dute. Bertan duzue araudia irakurgai. "Jolasak eta armairua ondo tratatzea eskatu nahi dugu, lan asko egin baitugu hau lortzeko", adierazi dute LH4koek. Udaltzaingoan eskatu beharko den giltza bidez ireki ahalko da

"HELBURUA EZ ZEN ZERBAIT ESKATZEA, HORI LORTZEKO ZER EGITEKO PREST GAUDEN IKUSI ETA EGITEA"

armairua eta erabili barruko materiala. Dena hartu bezala uztea eskatu digute eta giltza bueltan itzultzea, Udaltzaingoak udaletxean duen postontzira.

"Usurbil hobe bat sortzeko"

Oinherri herri hezitzaileen saretik dator ekimena. Usurbilgo Udala bertako bazkidea da. Lankidetzara batu da Udarregi ikastola eta irudiko ikasle taldea. Zubi-lana egiten aritu dira Usurbilgo bi hezitzaile; Jone Allur eta Enara Villafafila. Hilero elkartu dira ikasleekin proiektua garatzeko. Urte hasieran ekin zioten proiektu honi; herrian zer espazio aldatuko luketen, horixe izan zen egitasmoaren abiapuntua. Hasteko, "idea zaparrada bat egin zen". Horatik atera zen, "espazio bat nahi zutela jolasteko euria egiten zuenean, iturriak gaizki zuedela... Ideia desberdinak ateraziren". Egingarria izan zitekeen proiektu hautatua izan zen bolatokiko armairuarena, baina Allurrek aipatu zigunez, gaztetxoon ahotik behar gehiago azalatu eta identifikatu zituzten. "Helburua ez zen soilik eskaera bat egitea, baizik eta hori lortzeko zer egiteko prest gauden ikusi eta egitea. Garrantzitsua da haien artetik ateratako ideia izatea, zer behar zuten adieraztea baina baita nola lor dezakegun ere", Allurrek nabarmendu zigunez. Hala, berak eta LH-4koek aipatu moduan, materiala bildu zuten, egitasmoaz jakinarazteko kartelak jarri herrian, udaletxera eskaera orria helarazi... "Lanean aritu gara", taldeak adierazi moduan, helburu nagusi batekin; "Usurbil hobe bat sortzeko".

Proiektu hau, "haurren parte hartze kanal iraunkor bat sortze bidean" eginiko lehen ekarpena izan da, helburu argia duena; "ikustea herriko subjektu guztiek dutela hitza eta eragiteko aukera" eta nola ez, eskubidea, baita belaunaldi gazteenak ere.



Eskola Agenda 2030 programako parte hartzaileak Usurbilgo alkateari eginiko aurkezpen egunean ateratako argazkian.

Jasangarritasun gabeziaz hausnarrean

Hamar urte bete dira Usurbilgo Eskolako Agenda 2030 programa lantzen hasi zirenetik Udarregi ikastolako LH eta DBH zikloetan. Aurtengo lanketaren emaitza ekainean aurkeztu zioten Usurbilgo alkateari, udalbatza aretoan eginiko ekitaldian.

ARITZ LASARTE

Iaz, "hiri eta komunitate jasangarriak" hautatu zituzten lanketarako gaitzat, horren baitan mugikortasun jasangarria lantzea erabaki zuten, zer gertatzen den jasangarria ez denean. Aurreko ikasturtean diagnosia landu eta hortik lehenetsun batzuk finkatu ostean, oraingo honetan, "esku-hartze plana diseinatu eta gauzatu dugu" modu koordinatuan, LH eta DBHko ikasle taldeek osaturiko foroan.

Datu bilketa eta neurketak

Hiru fasetan bideratu dute lanketa. Lehenengo biak LH-

koek joratu dituzte. Hasteko, ikastolako bertako eta herriko hainbat guneetako datu eta irudi bilketa egin zuten. Ikastolako plazan, Aranerrekan izan ziren, tren-geltokiko zubian edota Bordatxo inguruan. Esperotakoa baino herri zaratatsua baino bizi direla jabetu ziren. Bildutako informazioa, DBHko ikasleekin partekatu zuten gero. Adierazi zieten, ohitura eta jokabide desegokiak (oihu eginez, eskailerak korrika jaitsiz, batera eta ozen hitz eginez, aulkiak arrastaka mugituz...), areagotzen da zarata haien ikasketen eremuan.

Horregatik, jokamoldeak aldatzeko proposamen sorta osatu zuten; txandaka hitz egitea, musika lasaia jartzea, zarata handia dagoela ohartarazteko gailuren bat izatea, mahaiak eta aulkiak airean taldean altxatzea, eskaileretan oihukatu gabe oinez ibiltzea eta zarataz hausnartu eta jokabideak aztertzen segitzea. LHkoen eskutik jasotako informazioarekin, hirugarren fasean barneratu ziren DBHkoak. "Interes handiz hasi ginen lantzen, Usurbilen zer nolako kutsadura akustikoa dagoen", adierazi digute lanketa honetan murgildutako

ikasleok. Usurbilgo kutsadura akustikoari buruzko txostena osatu zuten.

Kontzientziatzearen garrantzia

Sonometro bidez, herriko zarata neurtu zuten, horrek izan dezakeen eragina eta halakorik saihesteko egin daitekeena lantzen aritu ziren. Gomendagarritzat jotzen dute barruko espazioetan neurri akustikoak hartzea, ahots-baxuko jolasak sustatzea gune naturalan edota bizikleta zein ibilgailu elektrikoaren erabilera indartzea herri barruan. Horrekin batera, "herrian badaude zarata handiko beste puntu batzuk" eta horiek ikertzea proposatzen dute; hala nola, N634 errepide ertzeko etxebizitzak, etengabeko zenbaterako zarata pairatzen duten jakiteko. Gomendatutako dezibelio kopurua gaindituz gero, "hesi akustikoak jarri beharko lirake" ikasleek esanetan.

Izan ere, jabetu dira zaratak jendartearen "entzumen arazoak, loaren nahasmenduak, arazo kardiobaskularrak, estresa eta antsietatea" eragiten duela. Halakoak saihesteko denon arteko lankidetzak ezinbestekotzat jotzen dute. "Ikusgarritasun handiagoa eman behar zaio gai honi, guztioi eragiten baitigu", adierazi digute ikasleok.

Halako lanketei esker, "kontziente gara gertatzen denaz", bestela ez. Ekitera deitu dute. "Zaratak osasunean eta ongizatean eragina du. Guztion artean zarata gutxitu dezakegu. Datuak aztertzea eta kontzientzia hartzea garrantzitsua da". Izan ere, haien esanetan, "ez dugu arazo gehiago sortu nahi, nahiko arazo bada munduan".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA

UDAKO ORDUTEGIA
8:00 - 23:00 Igandetik ostiralera
8:00 - 24:00 Larunbatetan
Sukaldea 22:00etan itxen da.

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL Tel 943 73 20 27

943 361182

EROSKI / city

kale Nagusia 10, USURBIL



Ostegunetan txangoak egingo dituzte (uztailaren 30ean izan ezik). Hilaren 16an Hernaniko igerilekura joango dira.

Udajolasi ekiteko prest

Uztailaren 6tik 30era egingo den aisialdi ekimenari buruzko argibideak eskaintzeko, parte hartzaileen gurasoei zuzenduriko bilera egin zuten hilaren 23an Sutegin.

ARITZ LASARTE

Herriko festak amaitu eta biharamunean, gaztetxo asko Udajolas udaleku irekietan murgilduko dira. Astelehenetik ostiralera elkartuko dira, 9:30-13:30 artean.

Ostegunetan txangoak antolatu ohi dituzte eta egun horretan Udajolas 16:30ak arte luzatuko da. Hilaren 30a azken eguna izanik, egun horretan ez dute irteerarik egingo; bai, ordea gainerako ostegunetan, hau da, hilaren 9an, 16an eta 23an.

Aurreko asteartean, Sutegin eginiko bileran antolatzaileek zehaztu moduan, irrika eragin ohi duen Hernaniko irteera uztailaren 16rako dute programatua.

Saio osoan egotea

Aipatu moduan, Udajolasen hasiera eta amaiera ordua, urterokoa izango da. Covid19ak eragindako osasun krisialdi garaitik egiten ari diren moduan, ez dute biltzeko leku bat eta bera izango. Adin tar-

tearen arabera, gun e ezberdinetan bilduko dira goizero, nahiz gerora, elkarrekin hamaika dinamiketan parte hartu. Horretarako, puntualtasuna eskatu zuten eguneko ekintzak garaiz abiarazteko eta egun bakoitzaren amaieran, haurraren bila nor joango den adieraztea eta gai horretan aldaketarik balego, horren berri ematea.

Antolatzaileek ohartarazi zuten, garrantzitsua dela "haurrak saio osoan egotea", hasieratik amaierara. Eta egunen batean, ezin badu etorri aurrez jakinaraztea galdegin zuten. Jakinarazpenez ari garela, "norabide bakarreko whatsapp taldeak" osatuko dituztela iragarri zuten. Halere, antolatzaileekin hartuemanetan jartzeko urteroko komunikazio bideak zabalik izango dira. Udajolas amaitzean, urtero moduan, balorazio galdetegia helaraziko zaie parte hartzaileei. Hori osatzeak duen garrantzia ere azpimarratu zuten hilaren 23ko Sutegiko bileran.

Hezitzaileak, tituludunak eta herrikoak nagusi

Taldekatzei dagokienean, jakinarazi zuten, 6-8 bat haurrez osaturikoak izango dira LH ziklokoak, 10-11koak aldiz HH ziklokoak. Hamahiru eta hamaika talde osatu dituzte ziklo bakoitzean, hurrenez hurren. Taldeak orekatzeko aurtengoan, LH1ekoak HHkoekin multzokatu dituzte eta LH 5 eta 6 mailetakoak batu eta bi talde osatu dituzte. 27 hezitzaileko taldea osatu dute.

Horri ere azpimarra egin nahi izan zioten Sutegiko bileran. Izan ere, hezitzaile bat izan ezik denak herrikideak izango dira aurtengoan, eta bakar hori iaz Udajolasen aritutakoa da. Horri lotuta, hiru dira soilik dira titulu gabekoak baina hezkuntza munduan ikasten ari dira. Haiekin ariko dira Usurbilgo bederatzigarazte usurbildar, aisialdiko begirale izateko titulua eskuratzeko praktiketan ariko direnak. Datuokin, jada

iraganeko arazoan bilakatu da, Sutegiko bilerako deitzaileek oroitari zutenez, legeak araututako tituludun kopurua izateko erronka betetzeko zailtasuna. Errealitate hori eraldatzeko gakotzat jo zuten, antolatzaileek Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen baitako Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldearen baitan kokatzen den Aisiola hezitzaile eskolarekin elkarlanean Usurbilen antolaturiko hezitzaile izateko ikastaroak.

Azken asteotan prestakuntza lan betean dira hezitzaile denak. Taldean bildu dira, elkar ezagutzeko formakuntza saioa egin dute, taldekatzeak nahiz ekintzen programazioa ere lantzen jardun dute. Horrez gain, udaleko parekidesatun sailarekin antolaturiko formazioa jaso dute.

Euskara, ardatz

Beste urte batez, Udajolasen funtzioa nabarmendu dute antolatzaileek. Udajolas udal zerbitzu publikoa da, NOAUA! K.E.-k lizitazio bidez eskuraturikoa. Ekimenak urtero agerian uzten du, aisialdiak haurren garapenean, sozialazioan edota bizi-kalitatean duen eragina, onura. Euskaratik eta euskaraz eskaintzen da. Egun, errealitate soziala zenbat aldatzen ari den ikusita, euskalduntzearen ikuspuntutik "integrazioarako bide eta hizkuntza ohiturak sendotzeko" baliabidea ere bada Udajolas, antolatzaileen esanetan.

**PUNTUALTASUNA
ESKATZEN DA ETA
HAURRAREN BILA
NOR JOANGO DEN
ADIERAZTEA. ETA
ALDAKETARIK
BALEGO, HORREN
BERRI EMATEA**

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udala Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Santxo-Urruzola bikotea finalera iritsi da

Usurbilgo 53. Pilota Txapelketa amaierara begira da jada. Uztailaren 2an, 17:00etatik aurrera jokatu dira finalak.

Finalisten artean usurbildar bat izango da, Xabier Santxo Sagardia. Berarekin lehiatuko da Behar Zana taldeko Urruzola. Biak dira finalerako sailkatutako bikoteetako bat; bestea Txoperena-Goikoetxea leitzarrak.

Uztailak 2 osteguna
17:00 Usurbilgo frontoian

Gazteen mailako finala:

- Zufiria / Cestau (Behar Zana)
- Arregi / Zabala (Azkoitiako Oteiza/Abantzu)

Helduen mailako finala:

- (LIII. Txapelketa)
- Santxo / Urruzola (Pagazpe/Behar Zana)
- Txoperena /Goikoetxea (Leitza)

Ikastaro sorta Kzgunean

Uztailaren arratsalde izango da zabalik, 16:00-20:00 artean. Usurbilgo jaieguna tarteko hilaren 2an itxita egongo da, baita hilaren 31n ere. Abuztuan itxi egongo da. Hona hemen, datozen asteetarako ikastaroak:

- Uztailak 8-9, 16:00-18:00 "Editatu bideoak zure smartphonearekin".
- Uztailak 10-15, 18:00-20:00 "Zibersegurtasuna eta pribatasuna sarean".

- Uztailak 16-17, 18:00-20:00 "Google Drive. Bildu eta partekatu zure artxiboak".
- Uztailak 20-22, 16:00-18:00 "Adimen artifiziala, ChatGPT eta haren alternatibak".
- Uztailak 23-24, 16:00-18:00 "Android-en mantentze-lanak. Luzatu zure gailuaren bizitza".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Zikiro janerako txartelak

Ekainaren 19an egin zen Aitzaga elkartearen, Usurbilgo jaien baitan, uztailaren 4an egingo den zikiro janerako txartelen salmenta. Antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dituzte lerroon bidez, deialdiak izan duen harreragatik. Haien esanetan, urtero gehitzen doa hitzorduak erakarrirakoen kopurua. Aurten, batzuk txartelik gabe geratu dira. Horren harira

dator, zikiro janaren prestatzaileek bideratu nahi duten oharra. Txartela erosi duen norbaitek zikiro janera joan ezin badu, txartelak itzultzeko deia egin dute.

Telefono bidez

Horretarako, telefono zenbaki honetara deitzea galdegin dute: 608045479 (Igor). Hala egiten dutenei dirua bueltatuko diete.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 03


USURBIL Usurbilgo jaiak

09:45 Haur eta gazteei harrera Joxe Martin Sagardia plazan.
 10:00-13:00 Txikientzako puzgarriak frontoian.
 10:00-12:00 Ginkana (LH 1-LH 4).
 10:00-12:00 Gaztetxoentzako erronka (LH 5etik DBH 2ra).
 10:30-11:30 Txutxu tren. Eguneko zentroa eta Artzabalgo helduak.
 11:00-13:00 Toka, botea eta igel jokoa Artzabalen.
 11:30-13:30 / 15:30-17:30 Txutxu tren Bordatxo aurretik.
 12:30 Buruhandi eta erraldoiak.
 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen.
 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxegan.
 14:30 Gazte bazkaria txosnetan.
 15:30 Ur puzgarriak eta apar festa Artzabalen.
 18:00 Txokolate jatea eta Kaktus Dja Artzabalen.
 18:00 Xaukena elektrotzaranga txosnetatik abiatuta.
 20:00 Tapia eta Leturia frontoian.
 23:00 Kontzertuak txosnetan: The Lio, 48280, Moskato Dja. Gutxien uste duzunean, Platano Dantza.

LARUNBATA 04

USURBIL Usurbilgo jaiak

12:00 Elektrotzaranga.
 12:30 Herri kirolak.
 14:00 Zikiri jana Askatasunan.
 18:00 Sutargi txosnetan.
 18:00 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.
 19:00 Buruhandi eta erraldoiak.
 20:00 Laskotzaranga.
 23:00 Frontoian: Izan bai, Bele. Jarraian, txosnetan: Bad Sound, Fifi eta Fefa Dja.



Argazki hau 2012. urtekoa da. IÑAKI AGIRRESAROBEBE

"Haurren Egunera koadrodun zapiarekin etorri"

Gaztetxoenei zuzenduriko eguna izango da ostiral hone-takoa. Udaletxe aurreko ere-serkiarekin abiatuko da eguna. Gero, LH1-4 artekoek ginkanan parte hartuko dute eta erronkan LH5-DBH2 artekoek.

Ekintza horiei begirako pare bat ohar plazaratu dituzte antolatzaileek. Batetik, "partehartzaile guztiek koadrodun zapia ekarri beharko dute, elkarrekin Haurren Eguneko abestia kantatu ondoren, jolasetan parte hartzeko".

Bestalde, ginkanako parte hartzaileek kolore hauetako kamiseta jantzita agertu beharko dute: LH1ekoek urdina, LH2koek berdea, LH3koek txuria eta LH4koek morea. Bai ginkanan baita erronkan parte hartuko dutenei aldatzeko arropa ekartzea gomendatzen die antolatzaileek.

Hitzordu gehiago ere izango dira; txikientzako puzgarriak, txutxu-trena, txokolate-jana, puzgarriak, apar festa eta Kaktus Dja, besteak beste.

Xiberoko Botza-ren aldeko kanpaina

Xiberoko Botza irriatiak bere estudioak berritzeko diru-bilketa kanpaina bat abiarazi du. Crowdfunding bat antolatu dute sarean. Usurbilen, kuadrilla bat ari da kanpaina hau sustatzen. Igande honetan, 12:00etatik 14:30era mahai bat ipiniko dute frontoi inguruan. Nahi duenak, bere ekarpentxoak egin dezan.

Hurrengo bisita gidatuak

Uztailak 11, larunbata

• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita (gaztelera).

Uztailak 24, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Uztailak 25, larunbata

• 11:00-12:45 Museo Irekia eta Salvatore elizara bisita gidatua.

Uztailak 29, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Erreserbak:

650usurbilbizi.eus

Datorren astelehenean odol-ematea

Uztailaren 6an, 16:30etik 20:10era, Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdi-ko aretoan.

Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie.

Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Partzi
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

OSASUN GIDA

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoak.
- Emakumearen fisioterapia.



943 53 92 66

623 46 26 58

Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

✉ irati.ibargoiien@gmail.com

📷 @irati_ibargoiien_fisioterapia

📍 Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

🌐 www.iratibargoiien.com



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra
20160 Lasarte-Oria

· Dosifikazio sistema pertsonalizatua
· Dermofarmazia
· Produktu homeopatikokoak
· Maisu formulak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Usurbilgo
Hortz Klinika

Zure irribarrea,
gure lehentasuna



☎ 943 370 878 ☎ 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa



🔗 Osakidetzarekin
hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

zenta

**ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO**

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.



MABIOK
FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



C/ Alperroburu kalea, 1. Bsb · T. 608 671 925 / 943 372 658

mabiokfisioterapia.com

📞 📧 🌐

mabiok_fisioterapia



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO



747 486 835



publizitatea@noaua.eus

ikimilikiliklik

Vol.2

2026/07/18 | 22:30 | Doan
USURBIL. Dema plaza

650
USURBIL
bizi

Usurbil
Turismoa



Jatorrizko Ikimilikiliklik bidekidekariarekin
elkarrizketan sorturiko ikuskizuna

JATORRIZKO SORTZAILEAK

Abestiak: Mikel Laboa / Poesia: Joxean Artze / Arte-lanak: Jose Luis Zumeta

GAUR EGUNGO JOKALARIAK

Ekoizpena: Loraldia / Zuzendaria: Edurne Azkarate / Zuzendari laguntzailea: Mikele Urroz Zabalza
Musika-aholkularia: Iñaki Salvador / Sortzaileak eszenan: Iñaki Salvador, OREKA TX (Harkaitz Martinez de San Vicente eta Itziar Navarro), Libe Kortazar, Intza Alkain Zuzeneko, Itziar Garaluce
Testu berriak Intza Alkain, Itziar Navarro, Edurne Azkarate Zuzenezko ikus-entzunezkoak Itziar Garaluce
Argi teknikaria: Vanesa Santos / Soinu teknikaria: Mikel F. Krutzaga / Jantzitegia: Idoia Beratarbide
Produkzioa, kudeaketa eta komunikazioa: Loraldia